



# IKASTETXEETAKO PROEGAREN DELEGATUEN ETA TALDEEN ZEREGINAK

(2021.04)

Estatutuetan jasotzen denaren arabera, hauek dira PROYDE-PROEGAREN fundazio-helburuak:

- Justizian eta solidaritatean heztea.
- Herrialde behartsuenen sustapena eta garapena.
- Garapen proiektuen bitartez egindako lankidetzak.

Helburu hauek aurrera eramateko Fundazioak tokian Tokiko Ordezkaritzak ditu. Sentsibilizazio- eta diru-biltze-jarduerak batik bat La Salle Sareko hezkuntza-zentroetan egiten direnez, Tokiko Ordezkaritzek beren egoitza normalean hezkuntza-zentro hauetan dute.

Tokiko Ordezkaritza bakoitzaren buru Delegatu bat dago. Honekin batera interesgarri da, gutxienez, hiru lagunez osatutako talde bat egotea.

## **1. Tokiko Delegatua**

Tokiko Delegatuen lana garatzen den eremu nagusia kontuan harturik, Ikastetxeko irakasle bat izatea da egokiena. Guztiz egokia da irakasle hori Ikastetxeko Pastoral Departamentuko kide izatea eta baita Justizia eta Solidaritate Departamentukoa ere, horrelako departamendurik baldin bada Ikastetxean.

Hauek dira PROYDE-PROEGAko Delegatuaren zereginak:

- 1.1. Ikastetxeko Zuzendariarekin eta Zuzendaritza Taldearekin harremanetan egotea.
- 1.2. Tokiko Taldearen bilerak antolatzea eta bileretarako deiak egitea (lauhilekoan behin gutxienez).
- 1.3. Ordezkaritzako Urteko Planaren burutzapena eta gauzatzea bultzatzea, kontuan hartuz PROYDE-PROEGAREN Urteko Plana
- 1.4. Tokiko Ordezkaritzaren proposamenen eta beharren eramaile izatea Egoitza nagusiaren aurrean eta alderantziz.
- 1.5. Urtean zehar Ikastetxera bidaltzen diren sentiberatze materialak banatu eta azalpenak ematea.
- 1.6. Ikastetxeko estamentu ezberdinei banatzen zaizkien zirkularrak prestatu eta idaztea.
- 1.7. Herrian egiten diren Lankidetzak eta Garapenerako jardueren berri izan eta haien berri ematea.
- 1.8. Boluntarioen altak eta bajak Egoitza nagusira bidaltzeko ardura hartzea.

- 1.9. PROYDE-PROEGAko Tokiko Ordezkarien gogoeta- eta koordinazio-bileretan parte hartzea.
- 1.10. Tokiko Taldeari dagozkion zereginak bultzatzea Talderik ez dagoenean.

## **2. Tokiko Taldea**

Tokiko Taldeko kideek Delegatuari laguntzen diote bereak dituen zereginetan eta eremu ezberdinetako beste ekintzen ardurak beraien artean banatzen dituzte: idazkaritza, komunikazioa, ekonomia, erakundeen arteko harremanak, proiektuak, bazkide / lankide / boluntarioak...

Arreta bereziz zaindu beharko dituzte:

- 2.1. Boluntarioei eta lankideei dagozkien fitxak eta dokumentazioa eguneratuta edukitzea.
- 2.2. Dokumentuen artxibategia.
- 2.3. Egoitza nagusiarekiko, beste ordezkartzekiko eta erakundeekiko... komunikazioa.
- 2.4. Urteko Txostena (Memoria) burutzea Egoitza Zentralera bidaltzeko.
- 2.5. Herriko Erakunde publiko eta pribatuekiko harremanak.
- 2.6. Diru-laguntzei eta proiektuei buruzko informazioa bilatzea eta informazio hori Egoitza nagusira helaraztea.
- 2.7. Hala behar izanez gero, PROYDE-PROEGA ordezkatzeko Tokiko Lankidetza Kontseiluetan, GGKEen eta Boluntariotzen plataformetan eta beste zenbait lankidetza-eremuetan.
- 2.8. Zentroan eta herrian Bazkide eta Lankideen kopurua gehitu dadin saiatzea.
- 2.9. Egoitza nagusiarekin parte hartzea Boluntarioen sustapenean, formazioan eta harreran.
- 2.10. Ikastetxean urteko sentsibilizazio-kanpainaren garapena zaintzea.
- 2.11. GGKEaren funtzionamendurako eta haren proiektuetarako ekarpen ekonomikoen gaia arretaz hartzea.
- 2.12. Jasotako funtsak Egoitza nagusira bidaltzen direla zaintzea.
- 2.13. Bidezko Merkataritzaren gaiaz arduratzea edota laguntzea Zentroan